



ARGORRI
GIDAK

TREKKING **AIAKO HARRIA**

9 Km
+500 m

argorrigidak.com



AIAKO HARRIKO 3 TONTORRAK

Aiako harriko parke naturaletik egiten den ibilbidea da hau. Egun erdiko iraupena duena eta mota desberdinetako bideetatik pasatzen dena: bidezidorrak, basoak, mendiko pausuak...

Aiako Harrien hiru tontorrak lotzen dituen 9 kilometro inguruko ibilbide zirkular hau Elurretzeko aparkalekuan hasten da. Hasierako metroetan basoan barrena igotzen da, goi-tentsioko dorrearen ezkerretik doan bidezidorra hartuta. Igoera etengabea baina atsegina da, eta pixkanaka harri-granitozko paisaia ikusgarria agertzen hasten da.

Tontorretara "atzetik" igotzeko, ohiko aurrealdeko bidea saihestu eta hegoaldeko gorantz egiten da. Bidezidorrak lehenengo gailurrera eramaten du, Erroilbide (837 m) tontorrera. Bertatik, Bidasoa ibarra, Jaizkibel eta Kantauri itsasoa ikus daitezke egun garbietan.

Ondoren, gailurren arteko gandorrari jarraituz, Txurumurru (820 m) tontorrera iristen da. Tarte honetan eskuak erabiltzea eskatzen duten pasabide batzuk daude, baina ibilbidearen zatirik ederrena ere bada. Harri biluzien artean aurrera eginez, hirugarren, Irumugarrieta (807 m), heltzen da.

Hiru tontorrak lotu ondoren, bideak baso eta larreetara eramaten du, eta GR seinaleekin bat egin ondoren Elurretzerantz itzultzen da. Azken zatia lasaia da, igoerako pasarte harritsuak atzean utzita, eta aparkalekura zirkulua osatuz iristen da. Ibilbideak 9 kilometro inguru eta 550-600 metroko desnibel positiboa ditu. Mendizale ohituentzat zailtasun ertain-handikoa da; gandorreko pasabide batzuk bustita arriskutsu bihur daitezke, eta altuerarekiko errespetua izatea komeni da. Saria, ordea, bikaina da: Euskal Herriko granitozko paisaiarik ikusgarrienetako batean hiru tontor enblematikoak lotzea.

Ibilbidea

AIAKO HARRIA



Luzera guztira
9 km



Iraupena
4-5 ordu

Pertsona eta gida kopurua

10 pertsona + gida 1

Mendian ibiltzeko ohitura duen eta egoera fisiko onean dagoen talde homogeneoa.

Denboraren kalkulua: 2km/h. 200 m/h.

Beharrezko maila minimoa



Fisikoa
3/5

Mendiko ibilbidea, egun bakarrekoa. Etapa bakoitzeko distantzia 15 km-koa izango da gehienez, eta desnibelak ez du egunean 1.200 m-ko igoera positiboa gaindituko. Mendian ibiltzera ohituta egon behar da.



Teknikoa
3/4

Bide-zati batzuk malkartsuak diren lursailetik igarotzen diren ibilbideak, ondo zehaztutako bidezidorrik gabe. Aurrerapenerako eskuak erabiltzea da beharrezkoa izan daiteke.

Gutxienez hilabete lehenago bideratu behar dira entrenamenduak dagokion jarduerara. Beraz, zalantzarik izanez gero, gurekin harremanetan jartzea da onena. Berariazko plan pertsonalizatuak eta moldagarriak ditugu jarduera hau eta proposatzen ditugun guztiak egin ahal izateko.

Orografia

AIAKO HARRIA

7.30 km
Distancia

541 m
Ascenso

518 m
Descenso

1:27
5.0 km/h

Secciones de ruta → 8 ↗ 2 ↘ 4 → 3 ↘ 2



Desnibel positiboa	Desnibel negatiboa	Gehienezko altuera	Gutxieneko altuera
500 m	500 m	837 m	404 m



Helburuak

AIAKO HARRIA

Mendiko helburuak

- Aiako harria mendia inguratzea
- Bertako paisaia eta basoak ikustea
- Autonomiaz trekkinak egiten ikastea
- Euskal Harriko natura ezagutzea
- Taldean horrelako esperientzia bat bizitzea, jende berria ezagutuz
- Egunerokotasunetik aldentzea, erritmoa jeitsi eta bi egunez mendiaz disfrutatzea

Kirol helburuak

- 4-5 orduko mendiko ibilbidea kudeatzea: ahalegin fisikoa, orientazioa eta logistika konbinatzea.
- Erresistentzia hobetzea eta metatutako desnibelera ohitutzea.

Helburu pertsonalak

- Horrelako mendi-ibilbideetan konfiantza indartzea.
- Taldean partekatutako esperientziaz gozatzea, gidari baten segurtasunarekin.

Beharrezko materiala

AIAKO HARRIA

ARROPA:

- Mendiko oinetako egokiak
- Urratuen aurkako galtzerdiak
- Kamiseta teknikoa
- Bigarren geruza (forro polarra edo antzekoa)
- Jaka iragazgaitza (Gore-tex)
- Txapela edo Buff bat

OSAGARRIAK:

- Eguzkitako betaurrekoak

MOTXILA:

- Mendiko motxila ertaina 20-30 litro

ELIKADURA:

- Ura (gutxienez litro 1) eta janaria
- Telefono mugikorra + Identifikazio pertsonala

Prezioa Trekking egun 1

MIDI D'OSSAURI BUELTA



Talde irekia

35€/pertsonako



Talde itxia

Ekitaldi honetarako datarik ez badago edo egokitzen ez bazaizu eta era pribatuan egin nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin.

- 1 pertsona: **200€**/Pertsonako
- 2 Pertsona: **120€**/Pertsonako
- 3 Pertsona: **90€**/Pertsonako
- 4 Pertsona: **75€**/Pertsonako
- 5 Pertsona: **60€**/Pertsonako
- 6 Pertsona: **50€**/Pertsonako



Zer dago barne?

- Bertako mendi gida baten gidaritza zerbitzua
- Mendiko istripu aseguruua
- Ibilbidearen aurretiko aholkularitza
- Zergak

Erreserba

AIAKO HARRIA

Baldintza orokorrak

- Erreserba egitean, zenbatekoaren % 50 ordainduko duzu erreserba egiteko.
- Bizum bidez edo dirutan ordaindu ahal izango da.
- Jarduera hasi baina 7 egun lehenago itxiko da taldea eta parte-hartzaileen gutxienekora iritsi ezean, 1, 2 edo 3 pertsonako talde pribaturako ezarritako tarifarekin egin ahal izango da jarduera*
- Ekitaldiaren aurreko astean, 5-7 egunetan, informazio zehatza eta ordainketa osatzeko modua bidaltzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Talde publikoek osatzeko aukera handia dutenez, erreserba lehenbailehen egitea gomendatzen dugu.

Erreserba egiteko moduak:



argorrigidak.com



argorrimendigidak@gmail.com



+34 686 035 456

Informazio guztia arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu. Garrantzitsua da zure maila jarduera bakoitzerako eskatzen den mailara egokitzea. Edozein zalantza baldin baduzu laguntzeko prest gaude. Garrantzitsua da intolerantzien, alergien, gaixotasunen eta lesioen berri jakinaraztea ibilbidea hasi aurretik.



**ARGORRI
GIDAK**

argorrigidak.com